



Kodea:
2020AKN20011

Andoaingo Udala

María Uriarte Zuricaray andrea, Mainer Lainez Lazcoz andrea Alkatea duen, Andoaingo Udaleko (Gipuzkoa) Behin-behineko Idazkaria naizenez.

ZIURTATZEN DUT, A.F.A.J. erregelamenduko 206. artikuluan aurrikusitako salbuespena aintzakotzat harturik Tokiko Gobernu Batzarrak joan den 2021ko otsailaren 19an egin zuen ohiko batzaraldian, eta beste zenbaiten artean, ondoko erabakia hartu zuela, zati xedatzaileak honela dioelarik:

7.— Andoaingo udal liburutegiaren kokapena zehazteko alternatiben aurretiazko azterlana idazteko zerbitzua esleitzeko prozedura amaitutzat ematea.

Kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatezak eskuordeturik, 2020ko azaroaren 7an egindako bilkuran onartu zituela Andoaingo udal liburutegiaren kokapena zehazteko alternatiben aurretiazko azterlana idazteko zerbitzuaren kontratua esleitzeko, prozedura irekiaren bidez, Baldintza Administratibo Berezien Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria.

Kontuan hartuz, 2021ko otsailaren 11a datako Udal Idazkariaren Ziurtagirian jasotzen denez, lizitazio denboraldian, EZ dela proposamenik aurkeztu.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2021.02.18ko irizpena, Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatezak eskuordeturik, aho batez, honakoa erabaki du:

1. Andoaingo udal liburutegiaren kokapena zehazteko alternatiben aurretiazko azterlana idazteko zerbitzuaren kontratua esleitzeko, prozedura irekia bitartez eta ohikoa izapidetzean, deitutako lizitazioa amaitutzat ematea, inolako proposamenik aurkeztu ez delako.

2. Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan ziurtagiri hau eman dut, Andoaingen sinadura datan.

Behin-behineko Idazkaria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUaeb161f4-3178-49a9-a322-fb0562b66faf**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**